

# Unanun jolas parkea egitea helburu

Kontzejuak jolas parke bat egin nahi du Unanun. Proiektuaren zenbakekoa 23.000 eurokoa da eta 2009ko lehenengo sei-hilabetean eginga egotea nahi du.

Egiasmoa aurrera ateratzeko finantziario bilaketa Kontzejua egunotan, Nafarroako Gobernuak aurreten ez baitu altzariak berritzeko diru-laguntza deialdirik egingen. Batetik, saiatu behar dira Cedernaren bitartez diru-laguntza lortzen. Eta, bestetik, dei egiten diote herri-tarrei Nafarroako Aurrezki Kutxako "Zuk aukeratzen duzu, zuk erabakitzen duzu" programan parte hartu eta Unanun jolas parkea egiteko proiektua hautatzeko. Jolas parkeko zenbait lan auzolanez egingen dira.



Unanuko festetan primeran ibili ziren haurrak puzgarrietan saltoka.

## Osatu da Kontzejua

Aurreko astean egin zen batzarrean osatu zen Unanuko Kontzejuko batzordea. Honako hauek dira kontzejuko kideak: lehendakaria, M<sup>a</sup> Soledad Mozo Galarza; diruzaina, Cruz Mari Garziandia Garziandia; bokalak, Fco. Javier Mercero Berastegi, Jose Antonio Mozo Lizarraga eta Javier Mozo Lizarraga.

Jakina denez hauteskunde-etara ez zen inor aurkeztu eta bigarren deialdira ere ez zen hautagairik izan. Azkenean, zazpi hilabete eta gero lortu da kontzejua osatzea.

## Lizarragako kaleen izendegia aldatu dute

San Donato kalea ordenatu eta Calle Larga zena berrizendatu du Lizarragako Kontzejuak. Herriko zenbait kale berrizendatu dituzte, kaleak ordenatu eta txukuntzeko asmoz. Kale izenekin batera etxe-izenak ere jaso dituzte.

Karrika bakoitzari bere nortasuna eman diote. Hala, hemendik aurrera plaza ez da Calle Larga izango, Plaza Nagusiye, baizik. Eta plaza gaineko karrika, Auztei. Azi Iturri Txokoa elkartea dagoen karrika luze hori, aldiz, Azi Iturri karrika da orain.

Izen berriak jartzeko orduan herriko historia eta ohiurak hartu dituzte kontuan. San Adrian karrika izenarekin izendatu dituzte, adibidez, herriko festetan —urtero txandakatuz— apaizari bazkaria ematen dioten etxe multzoari. Horrekin batera, toponimoak ere errespetatu dituzte; horrela, San Donato karrikatik Telebidera doan kaleari Errekatxar izena jarri diote. Aipatu, kaleak izendatzeko orduan ere, ermiten kokapena izan dutela gogoan: San Donato, San Migel eta San Martin, adibidez. Nola nahi ere, zenbait kale-izen mantendu egin dituzte, hala nola, Eliz Bide.

Orain, aldaketak egin eta gero, karriketan kale-izenak nola paratu estudiantzen ari dira: etxe bakoitzean, etxe-izenarekin eta helbidearekin (kale-izena eta zenbakia) plaka bana jartzea. Horrela egingo balitz, etxe izenak ez dira galduko.

## Kontzejuaren bulegoa berritzeko asmoa

Jakina denez, Lizarragako Kontzejuaren bulegoa Medikuairen etxean dago. Iaz despeditu zituzten medikuaren etxeko lanak, baina teilatua eta kanpoko hormak baino ez zituzten konpondu, hala, barrukoa zegoen bezala gelditu zen. Kontzejuko bulegoa urtetan ez da berritu eta berrikuntzen premia du: paretak margotzea, altzariak berritzea... Gainera, ordenadorearen beharra dute. Hori dela eta, hobekuntza horiek egiteko finantziarioa behar denez, Nafarroako Gobernuari diru-laguntza eskaera egitea aztertzen ari dira.


Diru-laguntza lortuko balute, bulegoa Kontzeju-etxera pasatuko litzateke; baina laguntzarik ezean, Medikuairen etxean geldituko litzateke.



## Dorraoko herri-lurren aprobetxamendua enkantean jarri dute

Dorraoko Kontzejuak herri-lurretako larreen errentamendua enkantean jarri du. 20,81 hektarea belardi eta larre dira Dorraoko Kontzejuak esleitu nahi duena.

Esleipen bidea, ahozko posturen bidezko enkante publiko izanen da. Hartan parte hartu nahi duenak, zerbait aurreratu beharko du behin-behineko fidantza gisa. Baldintzen agiria, interesdunen eskura dago Dorraoko kontzeju-etxean.



**13. zk.**  
2008ko apirila

Argitaratzailea:  
**Ergoienako Udala**  
**Intxorreta z/g**  
**LIZARRAGA 31829**  
Tel. 948-460 141

NA-1063/2003 Lege Gordailua

## Ergoienak, hasiera batean, onartu egin du Arbizon kanpina egiteko plan berezia

*Espedientea hilabete batez egonen da ikusgai*

Sakanako zenbait eragilek Arbizon kanping bat egiteko egitasmoa jarri dute martxan, Berriain Azpia, S.L. enpresa, hain zuzen ere. Kanping hori Arbizuko dermioan egonen den arren, Ergoienako lurrekin (Unanukoekin) muga egiten duenez, haraneko udalaren, Ergoienaren, baimena behar du aurrera ateratzeko. Martxoaren 27an Ergoienako Udalak egindako batzarrean onartu egin zuen plana hasiera batean. Beraz, tramitearen hasierako baimena lortu dute arbizuarrek.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, espedientea jendaurrean egonen da maiatzaren 9 arte, interesdunak aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien alegazioak egin ditzaten. Ergoienako bizilagunek alegazioak aurkezten badituzte, horiei erantzun ondoren berriz onartuko du Udalak behin behinean; izan ere, Nafarroako Gobernuak dauka behin betiko onarpena emateko eskumena.



En el último pleno celebrado el 27 de marzo, el Ayuntamiento de Ergoiena aprobó inicialmente el Plan Especial de Instalación del Camping en Arbizu. Hay que destacar que el camping estará situado en Arbizu, pero al delimitar con Ergoiena (Unanu), por ser un plan especial, requiere del permiso del Ayuntamiento del Valle. Tras la aprobación inicial se ha abierto el plazo hasta el 9 de mayo, en los que los vecinos podrán realizar las alegaciones que consideren convenientes.


## Unanu eta Dorraoko industrialdea Utzubarren kokatzea adostu dute

Ergoienako Estrategia eta Hirigintza Plan berrian, Unanu eta Dorraoko industrialdea Utzubarren kokatu dute. Erabaki horrekin aukera eman zaie bi herriei industrialdea izateko. Hala, etorkizunean industrialdea egingo balitz, Unanu eta Dorraoko herri lurretan egingo litzateke, izan ere, bi herriek Utzubarren komunalak dituzte. Industrialde horrek Arbizutik Lizarrara doan errepidetik izanen luke sarrera eta abeltzaintza eta industriarako erabilera izanen luke. Bi herriotako kontzejuak bat datoz hartutako erabakiarekin.

Jakina denez, Ergoienako udala buru-belarri aritu da Udal Planaren berrikusketa eta plan estrategikoa lantzen. Ergoienako Udalak plana onartzen duenean, Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dio hiri-ordenazioko udal-plan orokor berritua.

Dentro del plan general municipal de Ergoiena, el Ayuntamiento ha aprobado situar la zona industrial de Unanu y Dorrao en Utzubar. Esta decisión se ha incluido en el Plan General Municipal de Ergoiena, dentro de la Estrategia y Modelo de Ocupación Territorial de Ergoiena, y está a la espera de aprobación por parte del pleno del Ayuntamiento.

El polígono que puede ser de uso ganadero e industrial, estaría situado en el terreno comunal que Unanu y Dorrao disponen en Utzubar, no muy lejos del polígono Zalduko Zubi de Lizarraga. Esta medida pretende dar una solución a las dos localidades para que, en el caso de necesitar, dispongan de zona industrial.



Ez dira neurri zehatzak, baina industrialdearen kokapena gutxi gora behera ezagutzeko balio du.

## www.ergoiena.com

Ergoienako Udalak web orria izanen du

Ergoienako Udalak otsaileko bilkuran erabaki zuen web orria egitea. Interneteko orriaren bitartez, Ergoienari buruzko informazio zabala hedatu nahi dute.

Web orrian, Udalar buruzko informazioa egonen da ikusgai. Hirigintza arauak, Ergoienako Hiri-ordenazioko Udal-plan Orokorra eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazioa zabalduko dute. Gainera, herritarrek, dokumentuak jaitsi ahal izango dituzte; erroldatze eskabideak, esaterako.

Web orriak, bestalde, haraneko kontzejuen berri emango du, beraien funtzionamendua eta baliabideei buruzko informazioa azalduko baita.


Haraneko zerbitzuei buruzko informazioa ere zabalduko du web orriak. Hala nola, turismoari buruzko informazioa eta haraneko enpre-

sen zerrenda.

Internet orriak festen berri ere emango du eta albisteen atala izango du —eskuartearen duzun buletina, esaterako, pdf formatuan ikusgai egonen da—. Bukatzeko, iritzien atala egonen da, herritarrek gai jakinei buruz iritzia eman dezaten.

Interneteko ataria izanen dena egiteko 3.000 euroko diru saila zehaztu dute. Datozen hilabeteotan web orriaren diseinua eta edukia lantzen ariko da Aldor Internet enpresa espezialdua. Asmoa da uztaila edo abuzturako ikusgai jartzea.

El Ayuntamiento ha aprobado una partida de 3.000 euros para la elaboración de la página web. En esta página los usuarios podrán consultar las normas urbanísticas y el plan municipal, también podrán obtener impresos oficiales. Los Concejales del valle también dispondrán de un espacio. Además la página también recogerá información del valle: listado de las empresas y de los servicios turísticos, fiestas, lugares de interés, rutas y paseos y noticias. Se estima que la página estará disponible para finales de verano.



## Familia batek jaso du jaiotzak sustatzeko ordenantzaren laguntza

2002an jaiotzak eta erroldatzeak sustatzeko diru laguntzak arautzen dituen ordenantza onartu zuen Ergoienako Udalak. Ordenantzaren helburua jaiotza tasak sustatu edo bulkatzea da, Ergoienan haur kopurua handitu eta bizi-lagun gehiago egoteko. Horretarako diru laguntza ematea aurreikusten du ordenantzak. Bada, 2007an aipatu laguntza eskuratu zuen familia batek. Udalak baiezkota eman dio eskaerari, eskatzaileek ordenantzak arautzen dituen baldintzak betetzen dituztela ziurtatu ondoren.

### BETE BEHARREKOAK

Diru-laguntza jaso ahal izateko, jaiotza den haurraren gurasoak Ergoienako herriren batean erroldatuta egon behar dute eta bertan bizi, gutxienez haurra jaiotze aurreko azken urtean. Haurra jaiotzearekin batera zehaztua dagoen diru-laguntza jasoko dute gurasoek, eta erditze anizkoitzen kasuan, dirulaguntza handiagoa izanen da. Adoptatutako umeen kasuan, umeak urtebete baino gutxiago badu, diru laguntza jaso ahal izango da. Hauek izanen dira diru laguntzaren zenbaterakoak: lehendabiziko



haurraren 400 euroko diru laguntza, bigarren haurraren 700 eurokoa, eta hirugarren haurraren 1.000 euroko diru laguntza.

Gurasoek diru-laguntzaren eskaera Ergoienako udaletxean egin behar dute, seme-alaba jaiotzen den urteko abenduaren 1a baino lehen. Seme-alaba abenduan jaiotzen bada, eskaera

hurrengo urteko abenduaren 1a baino lehenago egin behar da. Eskaera guraso biek sinatu behar dute, eta guraso bakarreko familietan aski izanen da jaioberriarekin batera familia osatzen duen guraso bakarrak sinatzea. Horrekin batera, seme-alabaren edo seme-alabaren jaiotza-agiria aurkeztu behar da.

## Hiru herriak lotzen dituzten bideak konpontzeko egitasmoa

Ibarreko 3 herriak lotzen dituzten bideak konpondu eta asfaltatzeko diru-laguntza eskaera eginen du Ergoienako Udalak. Proiektua prest dago eta Nafarroako Gobernuak deialdia egiten duenean diru-laguntza eskaera eginen du. Lanen aurrekontua 299.555 eurokoa da. Finantzazioan hiru erakundek parte hartze aurreikusten dute: Gobernuak, Kontzejuek eta Udalak.

Lizarraga, Unanu eta Dorraorekin batzen dituen bideak ez daude onenean eta Unanu eta Dorrao arteko porlanezko pista hainbat tokitan zartatuta dago. Izan ere, bide gehienak orain dela 40 urte egin ziren eta geroztik ia ez da berritze lanik egin. Hori dela eta, arazoari irtenbidea bilatzeko, Kontzejuek eta Udalak zerbait batzar egin dituzte konpondu beharreko zehazteko. Guztia adostu dutenean, Udalak, Uharte Arakilgo Lur Geroa, SL enpresari eman dio proiektua idatzeko lana. Dagoeneko, egitasmoa idatzita dago eta Landa Garapena eta Ingurumen Departamentuan aurkezteko zain dago.

### Konpondu nahi dituzten bideak:

Batetik, Unanu eta Dorrao artekoa, San Adres ermitatik igarotzen dena; bestetik, Unanutik Lizarragara Errotatik doan bidea; hirugarrenik, Dorraoko elizatik Errotabiderekiko bat egiten duen bidea; eta, azkenik, Dorraotik Lezizara doan bidea. Bideen zabalera 6 metrokoa izanen da guztira; errepideak 4 metro izanen ditu eta bazterretan, areka edo ubidea egonen da, metro banako zabalerarekin.


### Irurako aska

Irurako sastraka eta sasiak iaz garbitu zituzten. Egun, 20 behor eta 100 ardi larratzen dira bertan, baina udako egunetan ez da urik egoten eta beharrezkoa da aska bat egitea. Larrearen erdian aska bat jartzeko asmoa dago; aska burnizko izanen da, izotzari hobeki egokitzen delako.

### Finantziarioa

Ibarreko Udalak eginen dio laguntza eskaera Nafarroako Gobernu Landa Garapena eta Ingurumen Departamentuari. Departamentuak baiezkota ematen badu, lanen finantziarioa ondoko moduan egitea aurreikusi dute: %60 Nafarroako Gobernuak, %20 Kontzejuek, eta gainontzeko %20 Ergoienako Udalak hartuko du bere gain.

*Ergoienako Udalaren asmoa litzateke bideak txukuntzea, garbitzea, ezpondak ongi uztea eta asfaltoa ematea. Bideez gain, Lizarragako Irura larrean aska bat jartzea ere jasotzen du proiektuak.*



### Embredo de caminos de acceso a los pueblos

El Ayuntamiento ha redactado un proyecto para asfaltar y reasfaltar las pistas entre Unanu y Lizarraga, Unanu y Dorrao, y Dorrao-Lizarraga; así como para reafirmar la pista principal de Leziza en Dorrao y para crear un punto de agua en el pastizal de Irura de Lizarraga. El proyecto pretende mejorar la comunicación entre las localidades y facilitar la labor de los ganaderos. El presupuesto asciende a 299.555 euros.

El proyecto ya está redactado y está a la espera de ser presentado en el Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra.

Además, hay que destacar que este año los Concejales de Unanu y Lizarraga están llevando a cabo mejoras en parcelarias de ambas localidades. Otra medida más para mejorar el tránsito en el valle.

### Unanun eta Lizarragan bideak konpontzen ari dira

Lizarraga eta Unanuko herri guneen inguruko partzela bideak konpontzen ari dira. Ezpondak garbitu eta gero harrobiko legarra jarri dute. Hobekuntzokin hondatuak zeuden bideak konpondu nahi izan dituzte, abeltzainen mugikortasuna errazteko. Konponketa lanak egiteko, Unanu eta Lizarragako kontzejuek Nafarroako Gobernuaren Nekazaritza, Abeltzantza eta Elikadura Departamentuaren diru-laguntza jaso dute.

Lizarragan, Karduzako pista konpontzen ari dira, baita hilerrri ondoko bidea, Askogain eta Elorri mendiko pista eta pilotaleku atzeko aldetik doan bidea ere. Unanun, berriz, hiru bide konpondu dituzte: Mundiñuko bidea, herritik Errotara doan bidea eta herriaren beheko aldetik doan pista.